

# LANDARBASO ABESBATZAK SARI GARRANTZITSUAK HUNGARIAN

*“Azkeneko urteotan gipuzkoar abesbatza batek lortu duen saririk garrantzitsuena eskuratu du Landarbasok Hungarian” dio aho beteta Iñaki Tolaretxipik, Landarbaso Abesbatzako zuzendaria. 92 puntu lortu ditu koru gazteak “XXII. BELA BARTOK- Debrecen-go Lehiaketa”, garrantzitsuan eta abesbatzak azken hilabeteotan egin duen lanaren ordainsaria izan da. Zuzendaria bera ere sari pertsonal batekin bueltatu da. Eraitza ezin hobea.*

Landarbaso Abesbatzak “Debrecengo Bela Bartok Nazioarteko Lehiaketan” (Hungaria) parte hartu du uztailaren 25etik 31 bitartera, Sari Nagusiko kide den lehiaketetako bat. Uztailaren 27an, arratsaldeko 19:00etan Debrecengo Auditorian ospatu ziren final aurrekoetan finalean aritzeko eskubidea bereganatu zuen koruak 90,7ko puntuazioarekin, ahots nahasietako modalitatean epaimahaiak eman zuen puntuaziorik garaiena.

Landarbasok bikain abestu zuen derrigorezko obra, György Orban konposatzaile hun-

gariarraren “126. Salmoa” ondoren, Vytautas Miskinis-en “Gloria” Alberto Grau-ren “Kasar Mie La Gaji” obrak eskaini zituen. Abesbatza urduri xamar taularatu zen, epaimahaiak Alberto Grau bera baitzegoen, baina ondo egindako lanak, finalean aritzeko aukera eman zion abesbatzari.

Uztailaren 28a egun luze eta konplexua izan zen, arratsaldeko 19:00etatik aurrera berriz ere eszenatokira igo behar izan zuelako, polifoniako finalean norgehiagokan aritzeko eta lehiakide, Suitza eta Errusiako abesbatzak izan zituen: Tygresö Ungdomskör eta Akademia Chamber Choir.

Landarbasok finalari aurre egiteko, derrigorezko obra abestu ondoren, Alberto Grau konposatzaile venezolarraren “Bin Na Ma” eta David Azurza tolosarraren “Oihu Hau” obrak taularatu zituen. Landarbasok emanaldia borobiltzea lortu zuen eta epaimahaiak 92 puntu eman zizkion, lehiaketako bigarren saria eskuratuz. Lehenengo saria hutsik geratu zen, lehiaketako oinarriek lehenengo saria eskuratzeko gutxienez 95 puntu lortu behar direla finkatzen baitu.



Hirugarren saria Errusia aldera joan zen eta Suediar abesbatza laugarren geratu zen.

Era berean, egun berdinean, 22:00etatik aurrera folkloreko modalitatean abestu zuten Erreterriako neska-mutilek. Modalitate honetan abesbatza guztiek parte hartu izanaren diploma eskuratu zuten eta Landarbasok, Tolaretxipi berak idatzitako "Kantua eta Dantza" obra abestu zuen. Taularatze bikaina egin zuen koruak, txalapartari eta dantzariekin batera.

Amaierako ekitaldian modalitate desberdinetan aritutako 22 abesbatzetako zuzendarien artean lau sari banatu zituzten eta horietako bat Iñaki Tolaretxipik eskuratu zuen, György Orban konposatzailearen "126. Salmoa" obra interpretatzeko modu adierazkorragatik.

Hungarian lorturiko bi sari garrantzitsu hauek gogoz lanean jarraitzeko aitzaki bikaina eskaintzen diote abesbatzari.

## IMPORTANTES PREMIOS PARA LANDARBASO ABESBATZA EN HUNGRÍA

*"Es el premio internacional más importante de los últimos años conseguido por un coro gipuzkoano", así de contundente se mostraba el director de Landarbaso, Iñaki Tolaretxipi. El coro erreterriarra obtuvo un total de 92 puntos en la final del "XXII Concurso Internacional BELA BARTOK" celebrado en Debrecen (Hungria), como resultado del arduo trabajo realizado por el coro durante los últimos meses. El propio*

*director ha sido premiado por su trabajo en el concurso. Unos resultados inmejorables".*

El Coro Landarbaso ha participado en el "XXII Certamen Internacional Bela Bartok" (Hungria) del 25 al 31 de julio, uno de los Certámenes miembro del Gran Prix Europeo. El 27 de julio, a las 19 h., el coro obtuvo el pase a la final con una pun-



tuación de 90,7, la mayor que otorgó el jurado en la modalidad de polifonía de voces mixtas.

Landarbaso interpretó fantásticamente la obra obligada, "Salmo 126" del compositor húngaro György Orban y, a continuación, interpretó las obras "Gloria" de Vytautas Miskinis y "Kasar Mie La Gaji" de Alberto Grau. El coro subió al escenario con el respeto que merece tener en el Jurado a uno de los compositores de una de las obras interpretadas: el venezolano Alberto Grau.

El 28 de julio el coro se enfrentó a un día largo y duro: a las 19:00 h competió en la final de polifonía de coros mixtos con coros de Suiza y Rusia: Tygresö Ungdomskör y Akademia Chamber Choir.

La final de la modalidad de polifonía dio comienzo a las 19:00 h en el auditorio de Debrecen y fue el coro errenteriarra el que abrió la sesión. Landarbaso, tras interpretar la obra obligada, cantó las obras "Bin Na Ma" del compositor venezolano Alberto Grau y "Oihu hau" del tolosarra David Azurza. Landarbaso bordó su actuación y obtuvo 92 puntos, alcanzando así el segundo pre-

mio. El primer premio quedó desierto, ya que las bases establecen un mínimo de 95 puntos para optar al primer premio.

El tercer premio fue para Rusia y cuartos fueron los suecos.

Asimismo, a las 22 h. los chicos y chicas de Errenteria cantaron en la modalidad de folklore, interpretando la obra "Kantua eta dantza", compuesta por el propio director, Iñaki Tolaretxipi. Los coros recibieron un diploma de participación y Landarbaso logró encandilar al público gracias a la fantástica puesta en escena realizada, incluidos txalapartaris y dantzaris.

En el acto de clausura la organización repartió cuatro premios entre los directores de los 22 coros participantes en las diferentes modalidades, entre el que cabe destacar el otorgado a Iñaki Tolaretxipi por la interpretación expresiva de la obra obligada "Salmo 126" de György Orban.

Los dos premios conseguidos en Hungría son un buen aliciente para el coro y animan a todos y todas a seguir trabajando.

